

 AMOREBIETA- ETXANOKO UDALA P4800300H	IL0147	Ibilgailuaren zirkulazio baimena edota gidari baimenaren titularraren helbide aldaketa
---	---------------	---

ZER DA? ZERTARAKO DA?

Izapide honen bidez herritarrek Trafikoko Buruzagitza Nagusiko Erregistroetan bere helbidea eguneratu ahal izando dute, bai euren jabetzako ibilgailuaren zirkulazio baimenean, bai bere gidatzaile baimenean agertzen diren datuetan. Era honetan ez dira joan beharko Bilbon dauden Trafiko Buruzagitza bulegoetara aldaketa hori egiteko.

NORK ESKA DEZAKE?

Interesa duen edozein pertsona fisikok edo juridikok edo bere lege ordezkariak, ibilgailu baten zirkulazio baimena duena bere jabea izateagatik, edo gida baimena duenak, beti ere Amorebieta-Etxanon erroldatuta badago.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- [E116 TBN-n helbideak aldatzeko eskabidea](#)

1- Interesatuak eskatzen badu:

Eskaria eredu normalizatuan

2- Bere ordezkariak eskatzen badu:

Baimena ematen duen inprimakia, eredu normalizatuan.

Interesatutako pertsonaren NANaren fotokopia edo hori ordezkatzeko duen beste nortasun agiri bat.

NON ESKATZEN DA?

Aurrez aurre:

- [Udaletxea](#)
Udaletxea
Herriko plaza z/g, 48340 AMOREBIETA-ETXANO
Ordutegia: 7:30 - 15:00

Email bidez:

- haz@amorebieta.eus

ZENBAT KOSTATZEN DA?

Ez du kosturik

PROZEDURAREN EPEA

Aurreikusitako epea: Aste 1

Prozedura arrunta. Legezko gehienezko epea: Zehaztu gabe

ARAUDI APLIKAGARRIA

2018ko irailaren 24an Amorebieta-Etxanoko Udalaren eta TBNren artean sinatutako hitzarmena, informazio trukaketarako.

- [39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen administrazio prozedura erkideari buruzkoa](#)

ESKAERA JASO ONDOREN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA

Aurkeztutako eskaria eta dokumentazioari sarrera eman.

Astero TBNri udalean bildutako helbide aldaketak bidali.

NORK ONARTU BEHAR DU?

Ez dagokio

IZAPIDETZEKO ARDURA DUEN UDAL SAILA

Ekonomia arloa - Diruzaintza eta zergen bilketa

OHARRAK

Amorebieta-Etxanoko Udalak, 2018ko irailaren 24an Trafikoko Buruzagitza Nagusiarekin informazioa partekatu elkarren arteko administrazio lankidetzarako hitzarmenari atxikitzea izenpetu zen. Hitzarmen hori dela eta, udalak TBNri ibilgailuen zirkulazio baimenen titularren edota gidatzaileen helbide aldaketak jakinarazteko konpromezua haru du, titularrek horrela baimentzen dutenean.

Informazioa TBNra bialdu ondoren, honek eskatzaileari bidaliko dio zirkulazio baimena berria edota gida baimena berria, helbide zuzenarekin.